



Donibane Lohizuneko Idazle-eskola XVII. mendean

Mitxelena jaunari hitzaldi batean behin entzun nizekion hitzak datozkit burura. Lezio hauei hasiera emateko guztiz egokiak direla uste dut. Gutxi gora-behera honako hauek izan ziren Mitxelenaren hitzak: Gure aitzinekoek zama handiegia, larriegia utzi digutela. Gure indarren neurritik gora den egitekoa utzi digutela, geuk egin dezagun.

Bai. Euskera bere egoera kaxkarretik atera eta trebatu nahiz gabiltza. Sendotu eta salbamenduko bidean jarri nahi dugu. Eta hau da maiz neure buruari egiten diodan galdea: berantegi ez ote gabiltzan.

Hiriburuak galduak ditugu. Lur sail galantak ere erabat galduak. Joan den apirilean jaialdi bat eratu zuen Euskaltzaindiak Sabando-ko herrixkan, Araban, Juan Bautista Gamiz-en oroitzapenetan. Zeinen mingarri den euskaldunarentzat, orain berrehun urte euskaldun ziren lurralde haiek denak, gaur euskararentzat erabat galduak ikustea! Eta zenbat holako!

Alde batetik badugu mintzaira bat, euskara, mirakuiluzki-edo orain artio bizirik iraun duena. Hizkuntza guztiz berezia, geure-geurea, indoeuroparren uholdea Europako bazterraz nagusitu baino lehenagotik toki honi loturik bizi dena. Hizkuntza hau izpirituzko ondasun askoren jabe eta ekarle dela, ezin uka. Baina basa itxuran eta egoeran heldu zaigu. Laborari-arrantzaleen hizkuntza bezala, alegia.

Eskolan sarrerarik ez duen hizkuntza, idatzizko zereginetan erabiltzen ez dena, ofizialtasunik gabekoa, zabal-kunde-tresnak ukatzen zaizkiona. Notari, sekretari eta abarren paperetara hurbiltzen baldin bazara, ez oraingoe-tara bakarrik, baita behinolakoetara ere, han dena aurkitzen duzu erdaraz, fitsik ez euskaraz.

Bai, bistan dago. Jende eskolatuek, handikiek, gizarte goi-mailakoek, gehienetan behintzat, gibela eman diote euskarari. Behe mailakoen artean iraun izan du. Hoiiek eutsi diote. Baina hoiien artean ere etengabe atzeraka joan da.

Gaur mintzatzaile guti, eta guti hoiiek ere euskararen giharra galtzen ari dira. Ahulezia handi batez joa aurkitzen da euskara.

Edozein arlotan zerbait egin nahi duenak, behar du lehenik gauzaren egoera buru hotzez ikusi. Eta hau da, nik uste, hitz gutiz esanda, euskararen egoera.

Ahulezia handi batez joa kausitzen den hizkuntza, nola indartu, osasun bidera nola ekarri ?

Horretarako, besteak beste, euskara bera gaur-eguneko beharretarako gai bihurtu behar dugu. Hauxe da begien aitzinean dugun egiteko handia.

Nola, ordea ? Nondik hasi ?

Zorionean, euskarak, iraganeko mendeetan, izan du literatura bat. Tipia, noski, baina bere tipian badu guretzat baliorik. Gaurko bide-gurutzean, hil edo biziko gatas-ka honetan, oinarri bat aurkitu beharrean gara. Lur gogorrean oinak finkatu beharra daukagu. Eta hortarako mese-de ederra egin dezaiguke geure literatura honek. Txikarra da, apala, baina obra handi honetarako behar dugun oinarria eskeintzen badigu, bada zerbait.

Eta gogoeta apur hauek atalaurre gisa egin ondoren, lot gakizkion genre gaiari.

Karmelo Etxegarai jaunak, Gorosabel-en « Noticia de la cosas memorables de Guipúzcoa » obrari, gehigarri bezala, tomo bat erantsi zion, eta hor berri zerbait dakar Gipuzkoako euskal idazle zaharrez. Eta han hitz hauek esaten ditu : « Obsérvase entre los escritores vascongados hasta días muy recientes un fenómeno raro y digno de atención, y es que cada cual escribe con absoluta independencia de los demás, en el más perfecto aislamiento del espíritu. No hay ni asomo de escuela o cofradía literaria. » (1)

Batak besteren berri jakin gabe, bakartaderik ikaragarrienean, mortuan bizi balira bezala, aritu direla behinolako euskal idazleak... Hala izan ote da, gero ?

Urquijo jaunak erantzun zion Etxegarai jaunari : XVII. mendean, Lapurdi aldean, Donibane inguruan, izan zela euskal idazle-eskola edo lagunarte bat. Eta bakartasun giro hori gairitzen jakin zuela talde honek. Elkarturik lan egiten zuten, eta elkartasun horretarik datorren indarra, batasuna eta umotasuna ageri da haien lanetan. (2)

Hauxe da, bada, ene gaia : Donibaneko idazle-eskola XVII. mendean.

Alde bat uzten ditut lehenagoko idazleak. XVI. mendean badira bi, dakizutenez : Detxepare olerkaria eta Leizarraga itzularia. Bere eskualdeko hizkeran egiten ditu bere olerkiak Detxepare-k. Leizarraga-k, aldiz, Lapurdiko euskara hartzen du oinarritzat, nahiz eta bere sorlekuko euskara bestelakoa izan. Era hortara, XVI. mendeko obra hauekin, nolabait, hastapena ematen zaio Lapurdiko euskararen aldeko tradizioari.

Eta XVI. mendeko hastapen honek XVII. ean izango du segida. Eta hain zuzen, orain finkatu eta indartuko da tradizio hau. Orain erroak egingo ditu.

Ez naiz hasiko hemen Lapurdiko egoera politiko eta ekonomikoaz mintzatzen. Lapurdiren egoera politikoaz Darricau jaunak badu liburu bat (3). Garai hartan bere

(1) C. Etxegarai, « Apéndice a la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa, de D. Pablo de Gorosábel », Tolosa 1901 ; t. VI, p. 24.

(2) J. de Urquijo, « Obras vascongadas del Dr. labortano Joannes d'Eteheberri », París 1907 ; Introducción, p. LI.

(3) Darricau, « France et Labourd », Dax 1906.

foruak zituen Lapurdik. Frantziako erregeren azpian, baina bestalde, bere foru edo lege berezien araura gobernatzen zen.

Ekonomia aldetik, halako oparotasun edo goraldi bat ezagutu zuen mende horretan. Izan ziren, bai, gertakizun beltzak ere. Batez ere, Lancre-k egindako hilkintzak. Baina, oro har, nahiko egoera zorionsua ezagutu zuen Lapurdik mende horretan. Marinel herria zen Lapurdi. Euskaldun arrantzaleak Terranova-raino joaten ziren, baleak, makailaoa eta abar harrapatzera.

Donibane eta Ziburu ziren Lapurdiren birrikak. Lapurdiren hiriburu bizkor-urduriak. Egia esan, Donibane eta Ziburu elkarren artean mokoka ibiltzen ziren beti, baina hauxe zen Lapurdiren itsas atea.

1611. urtean Baionako Apezpikuak (Bertrand d'Echaz baigorriarrak), frantziskotarren komentu bat sor arazten du Donibane eta Ziburu-ren artean. Bi herri borrokariaren artean bakea eta anaitasuna zabal zezan. Bakearen Andre dena Mariari zegoen eskainia, gainera.

Eta hain zuzen, itxuren arabera, zenbait gizon eskolatu eta euskaltzaleren biltoki bilakatu zen komentu hau. Itxuren arabera esan dut. Zilegi izango ahal zait. kondaira ikerlariak puntu hau argitzen ez diguten bitartean, hipotesi bidez mintzatzea.

Axular-en Gero-n (4) argi eta garbi esaten zaigu « konpainia on batean », laguntalde batean, alegia, erne zela Gero liburua egiteko lehen asmua. Badakigu, beste aldetik. Materre frantziskotarra eta Axular har-emanetan izan zirela. Mende hartako euskal idazleen artean bi frantziskotar ageri dira: Materre bera eta Haranburu, Sarako semea.

Ene susmoa da. bada. etxe-komentu hartan zenbait apaiz, fraide, midiku eta jende eskolatu biltzen hasi zirela. Denak ziren euskaldun eta euskaltzale, eta han elkar berotuz eta lagunduz, euskarazko liburuak egitera jarri ziren. Ez da hau gizon bakarti batzuen bultzada izango, multzo batena baizik. Eta hain zuzen, hortik datorkio batasuna eta bai indarra ere.

Ba ote dago talde hura osatzen zutenen izenak jakiterik? Neurri batean bai, behintzat. Nondik eta nola?

(4) Ikus « Gero », Irakuntzaileari, n° 6.

Hara : alde batetik badakizkigu mende horretako euskal liburuen egileen izenak, eta egile hoiiek nongoak ziren ere bai. Gainera, liburuen aitzinaldean hitzaurre, eskeintza, laudorio-hitz eta bertso, esaminatzaile eta abarren izenak ageri dira, eta bistan da guztiak adiskide zirela elkarrekin. Beraz, laguntzalde hartan biltzen zirenak ere guti gora-behera hoietak izango ziren.

Eman ditzagun, bada, jaun hoiien izenak : Gillentena, apaiz nafarra, Stephanus Hirigoiti jaun midikua, beste bat Heriogiti apaiza (dirudienez, presunaia diferenteak dira), Harizmendi saratar apaiza, Ziburuko Etxeberri « doctor theologus », Materre frantziskotar frantsesa, Haranburu frantziskotarra (Sarako semea), Argaignarats predikaria. Klaberia, Disaneche, D'Urtubie, De la Masse Donibaneko erretora, eta abar.

Agian gaztelaniazko esan hura gogoratzekoa litzateke hemen : « Ni son todos los que están, ni están todos los que son ». Ez daude, alegia, gure listan talde hartako guztiak, eta listako zenbait kendu egin beharko lirake hortik. Baina oker egiteko peril handirik gabe konpainia hartako lagunak jaun hoietak izango zirela pentsa daiteke.

Gizon kultuoak ziren. Latinezko hexametro ederrak egiten trebeak. Hego-Euskalerrian espainolez argitaratzen zena ere ezagutzen zuten. Klaberiaeren bertsoetarik garbi frogatzen da hori. Eta euskararen kezka bizi-bizia zutela ere bai.

Esan dezagun zerbait bakoitzari buruz. Euskal idazle bezala nabarmendu zirenei buruz, behintzat.

Eta hor dugu, hasteko, *Etienne Materre*, frantsesa. Ez da sortzez euskalduna. « Doctrina Christiana » izena duen liburua argitaratzen du Bordelen, 1617. urtean.

Hauxe da notatzekoa : bide urratzailea ez zen euskalduna. Sortzez frantsesa zen. Frantziskotarra. Donibane-Ziburu bitarteko komentua sortu eta sei urte geroago agertzen da liburua.

Materrek bazuen beste liburu bat Parisen frantsesez aterea : « L'horloge spirituelle », 1606. Eta bigarrena euskaraz egin zigin.

Frantziskotarren bibliografilariek egiten dute Aita honen aipua, bai Waddingok « *Scriptores Ordinis Minorum* » delakoan, eta bai Juan de San Antoniok ere.

Juan de San Antonio honek dakarrena aldatuko dut : « Stephanus Materre, Gallus, Regularis Observantiae Provinciae Aquitaniae, Guardianus Coenobii Bayonensis, edidit Gallice librum cui titulus : Horologium Spirituale, Parisiis apud Joannem Sevestre, anno 1606. — Catechismum lingua cantabrica. Burdigalae apud Petrum de la Court, anno 1617, et Aquis Augustis anno 1704 in 16. Vidi. » (5)

Akitaniako Frantziskotarrek badute beren Probin-tziako kronika edo historia bat, 4 tomo handitan. (6) Nik ez dakit euskaldun liburugile frantziskotarrei buruz hor xehtasunik aurkituko den.

Nolanahi ere, Materre-ri buruz zenbait berri guztiz jakingarriak atera daitezke haren liburutik beretik. Sor-tzez ez zela euskalduna. Saran ikasi duela euskaraz. Eta Sarako erretorea zein zen badakigu : Axular handia. Gai-nera, liburuaren zensore edo etsaminatzaile bezala, Eli-zaren aldetik, Axular bera ageri da.

Nola edo zergatik etorri zen Materre Euskal Herrira ? Seguru aski komentu berri horren fundatzaile bezala.

Beraz, Materre Axularrekin har-emanetan zela eta harekin adiskidantza zuela, badakigu.

Materrenen liburua asko aldiz argitaratu zen. XVII. mendeko azken aldean Duronea apezak gehigarri frango-kin berriz aterako du.

Eta bada oraindik beste frantziskotar bat, idazle tal-de horretan :

Joannes Haranburu edo *Haramboure*. Bordelen, 1635. ean ateratzen du bere liburua : « Debozino eskuarra, miraila eta orazinotegia. »

Hau ere frantziskotarra zen, baina gorago aipatu ditu-dan bibliografilariek ez dute honen aipurik egiten.

Tarbes-ko apezpikuaren aprobazionea du liburuak. Liburuaren aitzinaldean badira Kristobal Harizmendiren bertsoak, egileari zuzenduak. Harizmendi hau ere Saran

(5) *Juan de San Antonio*, « Bibliotheca Universa Franciscana », Matriu 1732, 3 vol.

(6) « L'Aquitaine Séraphique. Notes historiques sur l'ordre des Frères Mineurs et en particulier sur la province séraphique d'Aquitaine », par le R. P. *Othon, de Pavie*, religieux profès de cette Province. Vanves près Paris, 1905.

zegoen apez, eta aurki ikusiko dugun bezala, bera ere eskal liburu baten egilea da.

Eta nongoa zen Haranburu ? Saratarra bera ere. Etxeberri, Sarako midikuaren obretarik dakigu hori. (7)

Debozino eskuarra prestaturik dauka bir-argitaratzeko, Patri Urkizu jaunak.

Joannes Etxeberri Ziburukoa. Hau dugu izar distiranta, Axularrekin batean, euskaltzale talde hartan. « Theologus » deitzen dute bere lagunek. Iaoia zen latinezko bertso apainak egiten. Ziburuko semea.

Hiru olerki liburu argitara zizkigun : « Manual Devotionezkoa », 1627, « Noelak » 1631, eta « Eliza erabiltzeko liburua », 1636. Eta oraino laugarren bat ere bazuen, Oihenart-ek dioenez, baina guregana ez da heldu. Hiztegia, aditza eta eskutitzak ere ba omen zituen : damurik, hoiek guztiak galdu dira. (8)

« Noelak » liburua argitara berri da Donostian. (9)

Zorigaitzez, berri guti dakigu jaun honi buruz. Eskola handiak egina zen segurki. Eta eskola hoiek jesuistekin eginik zituen. « Noelak » liburuan, San Inaziori eskeintzen dion olerkian, hara zer dioen :

« Bereziki ni nazaitzu
zordun, zeren zuretan
dakidana ikhasi baitut
eskola sainduetan ». (10)

Gillentena (Itsasuko erretoreak), Etxeberriri zuzentzen dizkion bertso batzuetan, Etxeberri honen anaia bat midikua aipatzen du. Anaia hau, Etxeberriren bertso-liburua atera orduko hila zen. Anaiaren koplak zeruan kantatuko dituela esaten du Gillentenenak. (11)

« Elizara erabiltzeko liburua »ren aitzinaldean datoz Klaberiaren bertso xeblebre haiek :

(7) « Obras vacongadas del Dr. labortano... », p. 75.

(8) Etxeberriren hiztegiak ikus Riev III, 513. Eta Etxeberriren beste lan hoietaz, ikus Lafittek agertu berri duen « L'Art poétique basque » (Oihenarten esku-iskribua), « Gure Herria », 1967, 195.

(9) Sociedad Guipuzcoana de Ediciones.

(10) « Noelak », p. 176.

(11) Ikus Riev I, 514.

Burlatzen naiz Garibaiez,
bai halaber Etxabez,
zeinak mintzatu baitire
erdaraz Eskualdunez.
Ezen zirenaz geroztik
Eskualdunak hek biak,
Eskaraz behar zituzten
egin bere historiak.

Laguntzaile hartako batzarkideen euskal-zaletasuna eta kezka bizi-bizia ageri da bertso hauetan.

P. de Argaignarats. Ziburuko koadjutore edo apez lagun. Bi liburu argitara zizkigun; bigarrena bertsoetan. 1. « Avisu eta Exortacione probetchosac bekhatoarearentçat », Bordele 1641; 2. « Devoten breviariora », Baiona 1665. Bigarren liburu honen argitaratze berria egin zuen Vinsonek. (12)

Jaun honen bizitzaz ta abar, ez dakigu deusik. Predikaria zela. Etxeberriren laguna ere bai, noski, « Noelak » liburuaren aitzinaldean honi koplak batzuk zuzentzen bait dizkio.

Zorigaitzez, Argaignaratsen lehenbiziko liburuaren bihirik ez da guregana heldu.

Ondoren dator: *Pedro de Axular*, « Gero », Bordelen, 1643. Hau da segurki talde horren arima, buruzagi eta eragile nagusia. Baina honen liburuari lezio bat eskaini behar diogunez gero, ez noa hemen deus esatera.

Cristobal Harizmendi, « Virginaren Officioa », 1658? Bertsoetan. Vinsonek bir-argitaratua. Dodgson-ek dioenez Oxford-en bada beste ale bat titulu honekin: « Ama Virginaren hirur Officioac », Bordelen 1660.

Harizmendi ere apez zen Saran. Etxeberri midikua-ren obretarik dakigu Saran, Mendiondo baserrian sortua zela. (13)

Arambillaga. Ahetzeko semea, eta Ziburun apez ego-na. « Jesukristoren Imitazionea » argitara zuen. Baiona, 1684.

Bernardo Gazteluzar jesuista. Hau ere Ziburuko

(12) Xehetasun gehiago jakiteko, ikus Riev IV, 481.

(13) « Obras vascongadas del Dr. labortano... », p. 75.

semea zen. Pabeko kolejioan irakasle. Olerki liburu eder bat argitara zuen: « Eguia Catholicac salvamendu eterna-laren eguiteco necessario direnac », Paben 1686.

Ez dut esan nahi azkeneko bi hauek talde hartako lagunak zirenik, urte-mugari begiratuz txit geroagokoak bait dira. Nolanahi ere, talde hark emandako bultzadaren segida, hori bai. Eta seguru aski, bultzada horri eskerrak sortuak.

Garai hartakoa da, baita ere, *Voltaire*-ren *L'Inter-pret* edo « Tresora hirour lengualetacua ». Lehen edizioa-ren urtea ez da ezagutzen. Orain berriki Patri Urkizuk eman digu bir-argitalpena. (14)

Eta bada oraino *Itsasoko Nabigazioneaz* beste liburu bat, *Hoyarabal*-ek frantsesez eta Piarres Detcheverry edo Dorrek euskeratua; Baiona 1677. Kintana jauna uste dut dabilela orain liburu hau bir-argitaratzeko asmotan.

Eta hor dugu, azkenik *Silvain Pouvreau*-ren kasua ere. Hau ere frantsesa zen sortzez. Saint-Cyran-en etxean euskaraz ikasia. Lapurdiko Bidart-en apez erretore izana eta euskarazko liburuen egile, edo hobeki esateko, itzul-tzaile bihurtua. Hau ere ez zen izango presiski Donibaneko bilera hartako laguna, baina segurki baino segurkiago haietarik probetxatu da. Honako itzulpen hauek argitaratu zituen: « Gristinoaren Dotrina », 1656, « Filotea » 1664, « Gudu Espirituala », 1665.

Makina bat lan utzi zituen argitara gabe langile fin honek. Hoietako batzuk Vinson-ek ezagutzera eman zituen. (15)

Argitara gabe direnen artean aipamen berezia merezi du Hiztegiak. Bai. *Silvain Pouvreau*-k Hiztegi bat utzi digu arras ona. Oso-osoa ez bada ere, dexente handia eta ugaria. Ahalkegarria da honelako lanak gaur arte argitaragabe egotea. Gainera, Hiztegi honetan ordura arte irtendako liburuetan dauden hitz eta esaldiak jasotzen dira. Badaude hiztegian Axular, Etxeberri Ziburuko, Leizarraga, Haranburu eta Oihenart-en obretarik hartutako hitzak, esaldiak ta abar, frantses itzulpenarekin. Beste hitz asko

(14) « Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo », V (1971), 175.

(15) « Les petites œuvres basques de Sylvain Pouvreau, prêtre du diocèse de Bourges », Chalon-sur-Saône, 1892.

herriaren ahotik jasoak. Ez frantses itzulpena bakarrik; batzuetan espainola ere jartzen du, eta inoiz latinezkoa, grekoa eta hebreoa ere bai. Beste batzuetan bat ere itzulpenik gabe dator hitza. Hara zer esan duen Mitxelenak hiztegi honi buruz: Euskaldunek egindako hiztegieta baino huts gutiago aurkitzen dela kanpotar batek egindako honetan. (16)

Bada zerbait ! Ez ote da gazteren bat, hiztegi hau argitaratzeko kuraia izanen duenik ? Donibane Lohizuneko idazle eskola ezagutzeko laguntasun ederra izango litzateke. Argitaragabe den bitartean, kontsulta bat edo beste egin dezakegu. baina nekez. Nik Urquijoren liburutegian den alea zerbait miatu ahal izan dut.

*

Lapurdiko tradiziotik kanpoan mende berean idatzi duten bi autore handi aipatuko ditut: Oihenart eta Tartas. Donibaneko eskolaren eragina senditu bait dute biek.

Ailande Oihenart, gizon eskolatua, landua. Latinez euskara eta Euskal Herriari buruz idatzi zuen. Euskaraz, berriz, Gaztaroko neurtitzak eta atsotitzak, Paris 1657. Argitaragabe utzi zuen « L'art poétique basque », gaur Lafitte jaunari eskerrak argiratua. (17)

Juan de Tartas. Bi libururen egile dugu: Onsa hilceco bidia, Orthez 1666; Arima penitentaren okupazio-ne debotac, Orthez 1672.

Nahiz eta beren eskualdeko euskaraz idatzi, Lapurdiko euskal liburuen eragina senditu dutela jaun hauek, ez da dudarik. Oihenart-ek oharrak bidali zizkion Silvain Pouvreau-ri, eta hoietan badira argitasunak Axular-en hitzei buruz, eta abar. Riev-en argitara ziren ohar hoiek. (18) Eta « L'art poétique », hortarik ageri da zeinen hurbildik ezagutzen eta segitzen zuen Oihenart-ek Lapurdiko literatur mobimendua.

Tartas-en « Onsa hilceco bidia » eskutan hartzen badugu, berriz, lehen kolpetik ere ezagun da han Axular-en itzala eta arrastoa. Axular-en liburuak bezala, honek

(16) Ikus « Eusketa » 1961, 18.

(17) « Gure Herria » 1967, 195.

(18) Riev IV (1910), 220.

ere badu Gomendiosco letra eta Iracurtçaliari. Bi zati hoietan garbi nabari da Axular-en hildotik dabilela Tartas. Gainera badu pasarte bat Axular-i adarra jotzeagatik edo ipinia dirudiena. Behintzat hala interpretatu du zenbaitek. Arueko euskaran bere liburua egin duelako esplikazioa ematean, Axular-en esan bat hartzen du, baina beste aldera jarria: « hanco lengagia ezpada asqui eder, hanco euscarac du oguena. eta ez euscaldunac... »

Nik ez dut uste Axular-en esana gezurtatzeagatik hori ipini duen. Bi gai desberdin ukitzen bait dute Axular-ek eta Tartas-ek. Axular ari da euskaraz nabari den liburu-faltaz, eta Tartas Arueko euskara moduaren jite bereziaz. Nolanahi ere, Axular ezagutzen eta imitatzen duela Tartas-ek, hori bai garbi ageri da.

XVII. mendean hasitako tradizio honek segida izango du hurrengo mendeetan. Etenik gabeko segida. Baina ene mintzagaia ez da hoietara hedatzen.

Nik hemen azpimarkatu nahi dudana, hau da: Tradizio honi hasiera eman ziona talde bat iban zela. Talde honetan bazen euskal kontzientzia, euskararen aldeko kezka, alegia. Sinestamendu gisa, hor dira lehen aipatutako bertso haiek (Klaberiarenak). Eta hor da Axular-en pasartea: « Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez. frantsesez edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ez pada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak. » (19)

XVII. mendeko euskal liburuak ez dira, ez, guk nahi bezain ugariak, baina mordoxka dexentea osatzen dute. Hizkuntzaren iturri eta lekuko bezala, denak dira balio handikoak. Literario aldetik berebiziko balioa dutenak ere ez dira falta.

Gainera, mobimendu honen luze-laburra neurtzeko, hau ere esan behar da: ez euskal liburuak bakarrik, baita euskal hiztegiak eta gramatika lanak egitera ere lotu zirela.

Mobimendu hura ez zen bakarka lanean ari diren zenbait gizonena. Talde bat zen. Idazle eskola bat. Eta horrek eman zion abiadura honi bere batasuna, eta indarra. Gizon batek guti egin dezake bakarrik. Dozena erdi

(19) « Gero », nº 10.

lagun, elkar lagunduz, berotuz, bultzatuz, besterik da. Axular-ek berak ere talde honi zor dio bere liburua. Seguru aski, bai Etxeberriek ere bereak. Eta Lapurdi eta Euskal Herri osoa zordun zaio talde honi.

Mugaz beste aldean bi mende eta gehiago pasa arte, ez da egongo horren antzekorik.

Gertakari hau, literario euskara bat guztiontzat amets dugun une honetan, ezin zokora daiteke.

Liburu hoietan bada orotarik: Prosa eta poesía eta errefraua. Badira lan orijinalak eta itzuliak.

Baina hau ere esan behar da: Zorigaitzez, salbu bat edo beste, gutiegi ezagutzen ditugula. Lan hoiek aurkitzen eta irakurtzen errazak ere ez dira, edizio berrien eta beste tresna lagungarrien faltaz. Hontaz ene bigarren lezioan zerbait esanen dut.

Bukaera gisa, bihoaz Urquijoren hitzak:

« El examen imparcial de los datos recogidos en las precedentes líneas me confirma en la opinión que expuse en otro trabajo, de que los euscarógrafos de los siglos XVII y XVIII no trabajaron con entera independencia los unos de los otros, ni escribieron sus libros sin consultar los ensayos de sus predecesores.

Queda también evidenciado que Pouvreau, sacerdote no vasco, pero que logró aprender el vascuence mientras desempeñaba su ministerio en la parroquia de Bidart, prosiguió sus estudios en París con verdadero entusiasmo. No satisfecho con aumentar el escaso caudal de libros en vascuence mediante las traducciones del catecismo del Cardinal Duque de Richelieu, del Philothea y del Gudu Espirituala, procura incluir en su diccionario cuantos vocablos encuentra en las obras de Lizarrague, Oihenart, Axular, Etxeberri, Sauguis y otros escritores; pide en los casos dudosos explicaciones al célebre autor de Notitia Utriusque Vasconiae; y todos estos trabajos y afares dan por resultado el vocabulario vasco-francés que, por imperdonable desidia de los vascos, permanece todavía inédito. »(20)

L. VILLASANTE.

(20) *Urquijo* (J.), « Las citas del Diccionario de Pouvreau », Riev III (1909), 519.